## Euskeraren adiskide bat

**EGUN batzuek atzetik ospatu da izkuntza galetako jakintzun da D. Ramon Menendez Pidal'en larogetamabostgarren jaiotzguna. Pozgarria benetan, ainbeste lan arrigarri, sakon eta txukun egin dituan bat, orrenbeste urtekin pizkor eta buru osoz ikustea.**

**D. Ramon Menendez Pidal'eri berexiki zorionak eman bearrean gaude gure euskal-izkuntzari dagozkion galetan ainbeste saiatu dalako.**

**Euskera beraren garrantziaz gañera, erri baten izakera ere erabiltzen dan izkuntzak agertzen duala, beste iñork ez bezela erakutsi du.**

**Berak dionez: «istori guztian ez dago bizirik diraun dokumentu au, euskera au, baño dokumentu oberik; noztik ez dakigun arren, lurralde onetan bizi dan izkuntza au, izan ere, bear bada, mundua gaurko girora ta lur— izakerara aldatu aurretikoa izatea, ditekena da-ta. Millaka urteztan bizireik gorde al-izan dituan pitxien argitan gerogoko denporaldietako illumpeetan zerbait ikusi genezake.**

**«Antxinetako españar izakeraren arrasto, aztarna eta ondarkin onenen gordetzalle izateko zoriona Euskalerriarena da. Ondarkin ederragoak ikusgarriagoak eta estimagarriagoak izango dira, baño izkuntza onen ainbeko garrantzikerik ez. Españi'ko bizikera bera eta nundik-norakoak izkuntza ortan daude gordeta, eta ez dira jakingo, ezta ezagutuko ere izkuntza au sakon aztartzen ez dan bitartean».**

**Baño izkuntza bat ez da ikasgai soil bat bakarrik; erri baten izakeraren errañu bat ez-ezik, urte-aldi baten luzeen buruan giza-bizitzaren ibillen muña ere bai. Erri bat nola buruz jantzirik dagoan bere izkuntza dago esaten.**

**Geiago oraindik: kontzientziko bete-bear bat jotzen du izkuntzari eutsitzea Menendez Pidal jaunak. Onela ez dute ez gaurko eta ez biarko euskaldunek izkuntza sendo bat il dutelako erantzutizunik izango.**

**Izkuntzari iraun erazteko, balioko eta mundu guztirako gauza dan euskal-literatura bat sortu bear da. «Euskaldunek literaturadun izkuntza bat nai dute, eta eskutaratuko dute», dio Menendez Pidal'ek. Itz auek suspertu eta indarberritzen gaituzte gure lanean jarraitzeko. Lan au, ondo begiratu ezkero, lan au, benetan lan eskaxa oraindik; erremintzutak ere kamutsak, izkuntza arabegiz josia...; baño zerbait egingo degulakotan gabiltz beti, erriaren agerpen bat degun gure euskera zaarrari eusteko asmo onez.**

## Erri bat salgai

**BERRI izugarri bat dakarte egun auetako paperak Naparroa'tik. Eundaogetamar bizilagun ogetazortzi pamilitan dituan LIZASO erriko baso, larre, soro eta zelai denak batera —esku batera— salgai daudela! Oraindik ez omen da, «El Diario de Navarra'k» dionez, erosleik agertu, baño jabeak zai daude saldutzeko.**

**Eta Lizaso'z gañera, Ulzama'ko aran edo ballarako beste amairu erriak ere, asmo berdiñekoak omen dira. Ona beren izenak: Larrainzar, Alkoz Lozen, Arraiz, Orkin, Auza, Zenoz, Elso, Elzaburu, Gorrantz, Olano, Gerendiain, Ilarregi, Iraizoz, Juarbe eta Urrizola-Galain. Euskal tankera ta itxurakoak Ulzama osatzen duten amalau erri oiek. Euskalerriko lurralderik politenetakoa bat da Ulzama.**

**Nekazaritzatik —aberetatik batez ere— bizi dira Ulzama'n; eta ezin iraun gaur, esneak geiago ematen ezpadu.**

**Esne-prezioak ez duala igoko batetik; ez dirala pentsuak jetxiko bestetik; eta Agrikultura Batzordeak ez dutela laguntzen ikusirik, beren errietako lurr-sallak saldutzeko gertu daude amasei amazazpi milla pesetan ektarea bakoitzeko. Gaur Lizaso osoa bezelaxe biar Ulzama'ko beste amairuak.**

**Industri-lanak ubaldu, erosotu, irabaziak goratu batetik, nekazaritzako lanak berez urriagoak berriz bestetik, eta industrietakoen langille pareraño ere —erretiro, seguro, puntu ta beste— ez dutela jaso nai nekazaria ikusirik, bidezkoen eta errexenera jotzen dator jendea; kanpoa utzi eta ola ta pabriketan lana eskatzen. Mundu osoko joera gaur alabearrez.**

**Jainkoari nai daikiola, Ulzama'k bere baserritarrakin oraindaño bizimoduan irautea. Naparroa'ko Agintariei dagokie Ulzama'ri, bere nortasun eta biziari eusteko bideak billatu, iriki ta zabaltzea. Batez ere Naparroa'ko Diputazioaren egitekoa dirudi, eta bagaude buruz eta gizalegez zerbait-zerbait asmatuko duala.**

# PLAJIOAK

*J. SAN MARTIN*

Edozein izkuntz literaturatan dira plajioak. Besteak idatzitakoarekin jabetze ori ezta atzo goizeko ipuia. Betikoa degu, toki guzietakoa eta garai guzietakoa. Baña, debekatua egoteaz, itxura txarrekoa da.

Zillegi ez diran gauzak, ezkerritik etorri edo eskuitik etorri, salatu bearrekoak dira. Ta, kazeta baten egitekorik onenetakoa da kritika. Jakiña, kritika oberako izan bear duala. Aburu batek, geienean izaten ditu zuzendu bearrezko gauzatxoak, salatzea azaltzeko era biurriak, ta beste zenbait usteri. Baña, aburuaren muina da irakurleak jaso bear duana, ta, batez ere, idazleak. Unamuno ta Loroño-ri buruzko aretan, bear bada ez nituan bear bezin argi egin agerpenak, baña zenbait begirada illuneko idazlek etzuan ondo jaso nere asmoaren muina. Orrela ere, ez nuan izan naikoa zentzadura. Edo, obeto esan da, ixillik gorde eziñeko zenbait gauzak berriz ere kritikaren iritzi zorrotzetara bultzatzen nau. Gañera, adiskide batzuek ere ortara beartu nairik ari dira. Ta, aurretiko ikasbideak aintzat arturik, eta kritika berez dala irristakorra jakiñik, noizik-peinean aburuz jardungo naiz. Eta, iñork erantzunik egin bear bazaida, gauzatxo bat bakarrik eskatzen det, eta au da, kritikatutako gaiari buruz jakitun egotea. Esan nai det, adibidez, Unamuno jusgatzeko ez duela eskubiderik bere lan nagusiak irakurri ez dituanak. Plajioa añako pekatua litzake ori.

Gaurkoan plajioeri buruz ariko naiz Gure euskal literaturak ere, bere murritzean, plajio bikañak ezagutu ditu. Naiz eta euskaldun seme askok uste izan, maiz karreradun gizonak izanik, euskerazko literaturarik ez dagoala. Jaun oiek jakin bezate plajio ta guzikoa degula.

Baña, gaurko ontan, surrerago azalduko dedanez, euskeratik erderara egin dan plajio bat salatuko det. Eta ondoren, euskeraren barneko batzuek, ezagutarazitzeko.

Plajioa noiz asten dan ezta erreza bereiztea. Idea bat edo bestelako atal bat aldatuta edo obetuta beste batek argitaratzea, esan ol da, ez dala plajiotzat artzekoa. Aintzinago gai bat edo gertaera bat, muinez arturik gaurkotzea ere ez da artzen plajiotzat. Ta, askoz are gutxiago, egilleak aipatzen duanean bere lanaren muina nundik datorren. Pio Barojak berak ere aitortua zuan **Vidas sombrías**-eko lau edo bost ipui Poe idazleagandikoak zirala. Ori ezta lotsatzekoa. Errialde guzietako idazleen jokabidea da. Ez ordea beste pekatu nagusiak; batere kezkatu gabe emendik edo andik arturik jabetu, eta konponketa txikien bidez edo batere konpondu gabe, berekiko uzta balitz bezela argitara eman.

Esan dedan bezela, orain arte, euskeraren barruan ezagutu ditugu plajioak. Orain berriz, euskeratik erderarakoak ere baditugu. Muñozkierro-k argitaratu berri du **Leyendas del país vasco** liburua. Apain eta txukun egiña. Ta, agiri danez, liburu gareztia izanagaitik, ardura gutxiko guraso euskeltzale batzuk beren semeentzat erosi dute. Ez det uste euskera ikasteko biderik egokiena danik. Eta, ikastola bateko andereñoa etorri zait esanaz, zenbait aurrek, orain arte euskeraz aituzten ipuiak berak, orain erderaz dituztela.

Erderaz egoteak ez nau asarratzen. Barandiaran-ek **Eusko-Folklóre**-tik artuak dirala ez esateak baizik. Batedon-bat Azkue-ren **Euskalerriaren Yakintza**-tik artua bada ere, geienak beintzat Barandiaran-engandikoak dira. Penagarria eze-zik, lotsagarria, aipamen berezi bat ez egitea.

Bear bada, norbaitek esango du erri ipuiak dirala, lenago ta geroztiago beste batzuek ere argitaratuak. A. Bilbaoren **Ipuin-barreka**-n edo J. Azpeitiaren **Amandriaren altzoan**, ta abar eta abar, liburu askotan jaso dira ipui berdintsuak. Baña, oietan ezagun da biltzalle bakoitzak era desberdiñean jaso dituala, baña ez besteak. Erderaz argitaratu dan orrek, zenbait antolamentu badu ere, era berdintsuan daude, itzulpen gisa. Etapenagarria da nundik artuak diran ez esan bearra. Ori egin bazuan, gure zorion eta gorazarreak merezi ziztuan.

Izkuntza batetik bestera aldatzean sarri egiten dira orrelakoak. Termes eta Andrés cataluyarrak ere, ori egin zuten Henry P. Guërin-en espeleolojiako liburuarekin, frantzezetik gazteierara itzuli eta berena balitz bezela argitaratu. Orregaitik, "Munibe aldizkarian liburu orren aipamena egin bear izan nuanean, esan nuan: orain Guërin-en liburua gazteleraz degu, eskerrak Termes eta Andrés-en lan neketsuari, (ikusi "Munibe", XIII. garren urteko 178/179 orrialdeak, 1961).

Orregaitik edo, euskeraren barnean egin diran plajioak, pekatu txikiagoak iduritzen zaizkit. Eta bertan, auek dira ospatsuenak:

1951-garrenean egin zan Donostian euskerazko idazlanen sariketa. Maikoetariko bat Yon Etxaide adis kidea izan zan, eta beragandin jakin nuan lenengo saritua plajioa izan zala. Bigarren saria irabazi zuanaren idazkia, urrengo urteko "Euzko Gogoa"-n argitaratu zan, Guatemala-n. **Ola zarrai begira** zuan izenburutzat eta Jose Errota izenordez firmatua. Orduan aitzen eman nion Etxaideri, ura ere plajioa zala. **Peru Abarka**-ren ola-gizonen atalarekin osatua bai zan.

Oso zelebrea izan zan Donostiako programan azaldu zan beste ura ere. Txillardegi-ren idazlanetik artuta. Antxeta-k izenpeturik emana (ikusi "Egan" 1958-garren urteko 90-garren orrialdea), itzez-itz salatua. Zillegi ez bada ere, oso erreza da, lotsa gutxikoentzat, iñoren soñekuz jaztea.

Urte asko eztala, ots aundia zabaldu zuan **Eguberri-aizeak**, 1956-garrenean, "Urkixo Mintegiak" antolatuta leen saria irabazi zuan ekitaldi bateko antzerkia gero jakin zanez, XVI-garren mendearen asieran Arrasateko Barrutiak euskeraz azaldua zala. Baña, etzuan orrenbeste arata atera bearrik. Ikurtzat, "Arrasaten ditu sustarrak" jarri zuan egille ustekoak, baña maikoak etziren konturatu. Plajio onek, bere aide ona ere izan zuan, zaarra berriztean eta aintzat artu gabea baloratzean. Antzerki au, "Egan" 5-6 zenbakian argitaratu zan 191/203 orrietan.

Geroztik, Barrutiaren lana eta bizitzaren argitasunak. Arestik argitarazu zituan, 1960-ko "Euskera" aldizkarian (V, 273/291 o.).

Bertsoetan maizago egin dira plajioak. Or, Ajta Zabalak du itza, eta "Auspoan" argitaratzen aridan liburuetan emango ditu argitasunak.

Dakidan eibartar batek, Iztuetarenbertsoak artuan beretzat, beste bertso baldar bat ezarriz eta "Eibar" aldizkarian argitaratu ziran, 52 zenbakiaren 14-garren orrialdean,konturatzeke euskaldunen artean gelegi ezagutzen dala Iztuetaren

**Nere maite pollita,**
**nola zera bizi?**
**zortzi egun onetan**
**etzaitut ikusi;**
**uste det zabiltzala**
**nigandik igesi,**
**ez dirazu ematen**
**atsekabe gutxi.**

Eta, nere erkide ori, beste bertso baldar traketzarekin gelditu ditzake.

Bakoitzari berea; ta ez jantzi iñon kapea.

# «Rabindranath Tagore»

*Ura zan ura gizona! Bere jantzi luze, aurpegi zabal, ille zuri ugaria eta bizarra aberats kokotzetik barrena.*

*Irri-parreu bar-bar ezpañetan.*

*Olerkari aparta! Kalkutan jaio zan 1861'en urtean.*

*Umetxoen lagun aundia zan, berak ere umetxo bat zirudin.*

*Bide-ertzeko lorakin itz-egiten zuan gizona. Itz batean esanda, biotz on eta xamurrekoa genduan Tagore ori.*

*Gizonenganako maitasunez gañezka zeukan bere anima.*

*Auxe zan bere dotriña: MAITASUNA.*

*Sortaldea eta Sartaldea batu nai izan zituan. Nola ordea? Maitasunaren bidez. Batasun orren alde eskeñi zuan bere bizia.*

*Baño, bada zerbait Tagore'n bizitzan arritzen gaituana: Ura zan bezin Jainko zalea eta zintzoa izanik, Kristau egiten zala aitortu gabe iltzea. Ain eroso eta gertu erabili zuan Jainkoa!*

*Egun batez, Europara etorri zan, beti bezela pake billa. Eta bere etxera itzultzerakoan, ara zer zion: «Jaietako kristautasuna eta eguneroko paganismua arkitu det Europan. Erlijiotik urrun dago daramaten bizitza».*

*Eta Kristori deadar egin zion: «Jauna, Jauna, europarrak baño obeto portatuko giñan gu zurekin, Indian jaio baziña».*

*Begira bere olerki-ale bat:*

*«Basamortuan zaldiz zijoan Ingeles batek, Arabear bat ikusi zuan zugaitz-pean. Atsegiten egongo zalata, itz-egiteko asmoz urreratu zitzaion ingalesa. Oso pentsati eta kezkatsu arkitu zuan arabearra Iru-lau zaldi zeuzkan onduan leporaño kargatuta eta ez nolanaiko gauzakin! Arabear ura merkader oietakoren bat izango zala pentsatu zuan ingelesak.*

*Osasun lagun! Zerbait gertatzen al zaizu? Nere laguntzarik bear badezu...*

*—Ai! —erantzun zion arabeak goibel—, kezkati egongo ez naiz bada? Neukan Pitxirik ederrena galdu bai dut.*

*—Ba —esan zion ingelesak—, Ori besterik ez ba-da. Pitxi baten galera deus ez da orrenbeste zaldi altzorrez beteta dauzkan batentzat.*

*—Ikusten dut bai, —zion arabeak—, ez dezula Pitxi orren baliorik ezagutzen.*

*—Zer Pitxi zendun, bada, galdetu zion ingelesak.*

*—Berdiñik gabekoa zan —erantzun zion arabeak—, Ura bezelakorik ez da geiago egingo.*

*Pitx ederren bat galdu dezu, orduan zion ingelesak berriro.*

*—Bai, —erantzun zion merkader gizonak, ostera goibel—, galdutako Pitxi ori egun bat da. Eta bein galdutako egunik ez da geiago arkitzen».*

OKORDIO